

Ekialdeko BARRUTITIK

Altza · Intxaurrondo · Miracruz-Bidebieta



2. zenbakia
Número 2

AURKIBIDEA

EKIALDEKO BARRUTIA

Aurkezpena	2
------------------	---

BARRUTIAREN JARDUERA

Intxaurdok proiektua.....	3
II. Berdintasun Plana onartzea	5
Agintarien soka-dantza San Martzial jaietan	6

PROIEKTUAK ETA BERRIAK

Herrerako futbol-zelaia berritzea	7
Gazteentzako emantzipazio bulego berria Kontadoresen	10
Igogailu eta eskailera mekanikoen ordutegia zabaltzea	12
Eraso sexisten aurkako kanpaina	14
Haurreskola berria Intxaurrondon	16
Harremanetarako informazioa	17

Bizilagun agurgarria:

Ekialdeko Barrutian egiten diren ekimen eta jardueren buruzko informazioa jaso nahian, newsletter berri hau aurkezten dizugu. Aldizka, Altza, Intxaurrondo eta Miracruz-Bidebieta auzoetako gaurkotasanaren berri eta Barrutiko Batzordean eta bertako lantaldeetan egiten den lanaren berri emango dizugu.

Ekialdeko Barrutiak hainbat organo ditu Altza, Intxaurrondo eta Bidebieta auzoetan programa-jarduera zabala garatzeko.


Ekialdeko Barrutiko Udal Batzarra kudeaketa deskontzentratuko kide anitzeko organoa da, gutxienez hiru hilean behin egiten ditu ohiko bilkurak, eta hemeretzi kidek osatzen dute: Barrutiko Batzarreko zinegotzi-lehendakariak, talde politikoetako zazpi kidek, auzo-elkarteetako bost ordezkariak eta Entitateen Udal Erregistroan inskribatuta dauden erakunde sektorialetako bost ordezkariak (kultura-, kirol-, hezkuntza- eta abar).

Gaur egun zazpi lantalde aktibo daude honako arlo hauetan: Parte-hartzea eta komunikazioa, Hirigintza eta mugikortasuna, Merkataritza, Berdintasuna, Gizarte eta kultura gaiak, Egituraketa eta Memoria historikoa. Azken urtean zehar, hezkuntza, kultura, gizarte eta komunitate-proiektu ugari atera dira Altzan, Bidebietan eta Intxaurrondon, udal arloekin eta auzo horietako eragileekin elkarlanean. Ekimenek gazteria, hezkuntza-integrazioa, kultura-sorkuntza, berdintasuna eta kohesio komunitarioa izan dituzte ardatz, eta, aldi berean, barrutian bizimodua hobetzen jarraitzeko funtsezko hainbat azterketa estrategiko bultzatu dira.

Dokumentu honetan, halaber, Donostiako Udalak bultzatu dituen Ekialdeko Barrutiko auzoetan garatutako proiektu eta ekintzen zerbitzu-informazioa eta albisteak aurkituko dituzu.

IntxaurDok proiektuak ikus-entzunezko hizkuntza hurbilduko die Intxaurrondoko ikasleei

Ekimenak bere bigarren edizioa ospatu du aurten, Intxaurrondo Hegoa ikastetxeko Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako ikasleen parte-hartzearekin



IntxaurDok proiektuaren bigarren edizioa egin da aurten, Intxaurrondoko ikasleei ikus-entzunezko mundua gerturatzeko, film labur bat sortuz. Oraingoan, Intxaurrondo Hegoa ikastetxeko Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako 21 ikaslek parte hartu dute, eta hilabetez bertatik bertara ezagutu ahal izan dute ikus-entzunezko pieza baten ekoizpen-prozesu osoa.

Aurtengo edizioak Ekialdeko Barrutiaren bultzada eta babesa izan du, gazteenei ikus-entzunezko hizkuntza hurbiltzeko. Edizio honetan, aurrekoarekin alderatuta, hainbat hobekuntza sartu dira, hala nola ordu kopurua handitzea eta saioak hilabete bakar batean kontzentratzea. Metodologia horri esker, ikasleen ikaskuntza indartu eta esperientzia aberastu ahal izan da.

Proiektua hiru fasetan garatu da: ikus-entzunezko hizkuntza ulertzea, ekoizpen baterako beharrezkoak diren alderdi teknikoak ikastea eta film laburra filmatzea. Prozesu horretan, ikasleek zinemaren sorreratik hasi eta gidoi bat egiten ikasi dute, baita kamerak eta soinu-ekipoak maneiatzen, baimenak kudeatzen edo filmaketa profesional bat garatzen ere.

Ezagutza teknikoez gain, IntxaurDok zeharkako gaitasunak landu ditu, hala nola talde-lana, erantzukizuna, erabakiak hartzea eta zereginen antolaketa. Filmaketa bost jardunalditan garatu da, bost profesionalen laguntzarekin, eta, horri esker, ikasleek modu praktikoa esperimendu ahal izan dute nola garatzen den ikus-entzunezko produkzio bat eta proiektu komun bat aurrera ateratzeko ahalegin kolektiboak duen balioa deskubritu dute.

Bigarren edizio honen balantzea oso positiboa izan da, eta azpimarratzekoak dira bai irakasleen inplikazioa, bai prozesu osoan zehar ikasleek erakutsitako interesa eta parte-hartzea, euskara izan baita ohiko lan-hizkuntza.

Ekialdeko Barrutiak bere II. Berdintasun Plana onartu du

Dokumentu honek 2027-2030 aldirako ibilbide-orria finkatzen du eta Barrutiak berdintasunarekin, indarkeria matxisten prebentzioarekin eta emakumeen ahalduntzearekin duen konpromisoa indartzen du

Ekialdeko Barrutiko Batzarrak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana 2027-2030 onartu du, 45 ekintza biltzen dituen dokumentu estrategikoa, datozen lau urteetan Barrutiko berdintasun-politikak markatuko dituenena. Plana modu parte-hartzailean egin dute Ekialdeko Barrutiko Batzarreko Berdintasun Taldeak eta Donostiako Udaleko Berdintasun Sailak, lehenengo planaren ebaluazioa eta lurraldeko berdintasunaren egoeraren diagnostiko berria oinarri hartuta.

II. Plana lau jarduera-eremu handiren inguruan egituratzen da: gobernantza eta parte-hartzea indartzea, emakumeen ahalduntzea, gizarte-antolamendua erantzunkidetasunetik eta zaintzatik eraldatzea, eta indarkeria matxisten prebentzioa. Guztira, zortzi programa espezifiko, hamalau helburu eta 45 ekintza zehatz garatzen ditu, Ekialdeko Barrutian berdintasun-politikak sendotzen jarraitzeko.

Lan-ildo nagusien artean, honako hauek nabarmentzen dira: Barrutiko Berdintasun Taldea indartzea, Jabekuntza Eskola topagune eta prestakuntza feministarako gune gisa sendotzea, emakume gazteen eta hainbat jatorritako emakumeen parte-hartzea sustatzea, zainketen erantzunkidetasuna sustatzen duten ekimenak bultzatzea eta koordinazioa hobetzea indarkeria matxistei aurrea hartzeko eta aurre egiteko.

Halaber, emakumeek espazio publikoan egiten dituzten ekarpenak ikusarazteko, komunitate-sareak indartzeko, kulturen, kirolean edo aisialdian ikuspegi feminista sustatzeko eta Barrutian garatutako politika guztietan genero-ikuspegia zeharka txertatzeko ekintzak jasotzen ditu dokumentuak. Planak lau urteko indarraldia izango du, 2027tik 2030era bitartean, eta jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak izango ditu aldian-aldian, aurreikusitako ekintzen betetze-maila neurtzeko eta jarduerak garatu bitartean sor daitezkeen beharretara egokitzeko.

Soka-dantzak berriro ireki zituen Altzako San Martzial jaiak

Dantzaldiak Ekialdeko Barrutiko Batzarreko kideak bildu zituen berriro, auzoaren batasuna eta nortasuna sinbolizatzen duen ekitaldi batean



Agintarien soka-dantzak berriro ireki zituen Altzako San Martzial jaiak, 2023an berreskuratutako eta antzinako udalerraren historian sustraiak dituen tradizioa sendotuz. Dantza zeremonial honek, Ekialdeko Barrutiko Batzarreko kideak protagonista dituen, batasuna, herritarrekiko konpromisoa eta erakundeen eta komunitatearen arteko lankidetzaren sinbolizatzen ditu.

Soka-dantza euskal kultur ondarearen adierazpen adierazgarrienetako bat da. Katean dantzatua eta protokolo tradizional bati jarraituz, komunitatearen kohesioa eta hura ordezkatzaren dutenen ongizate kolektiboarekiko konpromisoa adierazten ditu.

Altzak lotura handia du tradizio horrekin. 1931. urtean, Altza oraindik udalerririk independentea zenean, ospatutako soka-dantza baten lekukotza dokumentatuak daude, non tokiko agintari nagusiek parte hartu zuten. Laurogeita hamar urte baino gehiago geroago, tradizio hori jaien hasieraren zati bihurtu zen, auzoaren oroimenaren, kulturaren eta identitatearen arteko lotura indartuz.

Herrerako futbol-zelaia osorik berritzeko obra esleitu du Udalak, 3,1 milioi euroko inbertsioarekin

*Jokalekuko lanak datorren maiatzan hasi ziren eta zelai berria 2026ko urrian
estreinatzea ahalbidetuko dute*



Etorkizuneko instalazioaren fotomuntaia

Herrerako udal-futbol-zelaia goitik behera berrituko da, hainbat urtez hondatuta egon ondoren eta kirol-jarduerari nahiz instalazioen segurtasunari eragiten dioten gabezia teknikoak izan ondoren. Tokiko Gobernu Batzarrak astearte honetan onartu du proiektua, 3,1 milioi euroko aurrekontuarekin.

Gaur egun, instalazioak soropil artifizialaren higadura aurreratua du, pitzadurak eta bertikaltasun-galera, drainatze-sistema partzialki buxatua eta ureztatze-sistema ez-

operatiboa. Baldintza horiek egunero kategoría eta klub desberdinetako hamarnaka futbolarik erabiltzen duten ekipamenduari eragiten diote.

Obren hasiera eta egutegia

Udalak datorren maiatzaren 12an ekingo die aldez aurreko lanei, futbol-denboraldia amaitutakoan joko-zelaian jardun ahal izateko. Lursailaren berritzea lau hilabeteko epean osatzea da helburua, urte horretako urrian martxan egon ahal izateko. Aldi horretan, Donostia Kirolak instalazioen erabilera alternatiboa antolatuko du ukitutako klubentzat, batez ere denboraldiaurrean eta 2026-2027 kanpainaren hasieran.

Ondoren, aldagelak eta harmailak berritzeari ekingo zaio, eta 2027ko urtarrilean irekitzea aurreikusi da.



Instalazio moderno eta iraunkor berriak

Proiektuak azken belaunaldiko belar artifiziala instalatzea aurreikusten du, iraunkorragoa eta hondakin plastikoak sortzen dituzten betegarririk gabea. Eremu berriak, gainera, honako hauek izango ditu:

- Errendimendu handiko sei kanoiko ureztatze-sistema
- LED luminariak dituzten zutabeen bidez argizatzea
- Markagailu elektronikoa, emaitza eta denbora bistaratuta
- Tunel erako aulkiak, jokalekuan integratuta
- 11. futbolerako eta 7. futbolerako arauzko ateak (azken horiek tolesgarriak dira)
- Izkinako banderatzak, masta malguekin

Aldi berean, aldagelak eta harmailak hobetuko dira, egitura mantenduz, baina zelai-mailan harmailak kenduz eta irisgarritasuna hobetuz.

Ondarea berreskuratzea eta ingurunea hobetzea

Esparruaren elementu berezietako bat, arku beheratuak dituen hormigoi armatuzko sarrera zaharra, proiektuaren barruan berreskuratuko da, bere izaera historiko eta sinbolikoari balioa emanez.

Era berean, urbanizazio perimetral berri bat egingo da, zoladura, zintarriak, zelaiaren beste itxitura bat eta aparkalekutik arrapala irisgarriak izango dituen.

Jarduera honen bidez, Herrerako auzoari kirol-instalazio moderno, seguru eta egungo beharretara egokitua eman nahi dio Udalak, topagune eta gizarte-kohesiorako gune gisa duen eginkizuna indartuz.

GAZ gazteen emantzipazioa bultzatzeko bulego berria ireki da Kontadores zentroan

*Emantzipaziorako abal eta laguntzei buruzko bi hitzaldi informatzailerekin
hasiko du bere ibilbide ofiziala*

Ireki da Bidebietako Kontadores Gazte Zentroan gazteen emantzipaziorako aurrez aurreko bulegoa. Gune horri esker, gazteek informazio eguneratua jaso ahal izango dute enplegurako prestakuntzari, graduondokoei eta ikerketari buruz, enplegua bilatzeko tresnei buruz, ekintzailatza sustatzeko laguntzei buruz, alokairuko parke publikoko etxebizitza bat eskatzeko moduari buruz, alokairuko etxebizitza pribatu bat ordaintzeko laguntzei buruz edo gizarteratzearen arloan dauden laguntzei buruz, besteak beste. Azken batean, aholkularitza, informazioa eta prestakuntza jasoko dute hirian emantzipatzeko urratsa emateko, Donostia Gazteriaren katalogoan integratutako zerbitzu baten bidez.

Era berean, prestakuntza- eta informazio-hitzaldiak, tailer espezifikoak eta ikastaroak bultzatuko dira, gazteei beren bizi-proiektua garatzen eta gaitasun desberdinak sustatzen laguntzeko. Helburua da beren bizi-proiektua Donostian bizi, ikasi, lan egin edo garatu nahi duten gazteek bizitza autonomoko eta garapen pertsonaleko prozesu batean hasteko behar dituzten tresnak eskuratzea.

Aurrez aurreko zerbitzuaz gain, GAZ Donostia proiektuak programa osagarriak izango ditu, hala nola Martx-Up (gazteen ideiak eta proiektuak bultzatzea), baita laborategiak eta parte hartzeko guneak ere, sormena, enplegarritasuna, bizitza independentea, osasuna eta konpromiso komunitarioa sustatzera bideratuak. GAZ bulegoa emantzipaziorako politika publiko berriak diseinatzeko, ebaluatzeko eta sistematizatzeko gune gisa ere ulertzen da, Euskadiko beste udalerri batzuetara transferitu daitezkeen ikaskuntzak ateratzeko helburuarekin.

Gazte Emantzipaziorako Euskal Sarea gazteen emantzipazio-prozesuak bultzatzea eta azkartzea helburu duten zerbitzu, programa eta baliabideen multzoa da. Gaur egun, Euskadiko gazteen batez besteko emantzipazio-adina 30 urte ingurukoa da. Estrategia multzo horren hedapenarekin, adin hori murriztu nahi da datozen urteetan, eta, horrez gain, gazte emantzipatuen ehunekoa nabarmen handitu nahi da, bereziki 25-29 urteko adin-tartean.

Udalak mugikortasun bertikaleko elementuen ordutegia luzatuko du uda honetan

Udalak ordubete luzatuko du zerbitzu horien eguneroko funtzionamendua eta Aste Nagusian goizaldeko 1:00ak arte egongo dira martxan



Donostiako Udalak hiriko arrapalen, igogailuen eta gainerako elementu mekanikoen funtzionamendu-ordutegia luzatuko du uda honetan, espazio publikoaren jarduera eta gozamen handieneko hilabeteetan mugikortasun erosoagoa, seguruagoa eta irigarriagoa izan dadin. Neurriak herritarrek egindako eskaerari erantzuten dio, eta zerbitzu horien funtzionamendua hiriaren udako bizi-erritmora egokitzea ahalbidetuko du, tenperaturak, aisialdiak eta kaleetako jarduerak pertsona askok etxetik kanpo egonaldia gehiago luzatzea eragiten dutenean.

Horrela, uda honetatik aurrera, igogailuek, arrapalek eta hiri-elementu mekanikoek ordubete gehiago luzatuko dute beren ohiko ordutegia, eta 00:00ak arte egongo dira martxan.

Gainera, Aste Nagusia dela eta, Udalak errefortzu bereziari eutsiko dio, eta zerbitzu horiek guztiak goizaldeko 1: 00ak arte egongo dira martxan, jaietan joan-etorriak errazteko eta jende gehien biltzen den egunetan auzoen arteko lotura hobetzeko.

Ekialdeko auzoen kasuan, zerbitzu hauek hobetuko dira:

- **Altza:** Txirrita Bertsolaria, Buenavista, Harrobieta, Larratxo, Rutilita, San Luis Gonzaga, Altza-Larntaxoko igogailu inklinatua eta Harrobieta eta Larratxoko eskailera mekanikoak.
- **Intxaurrondo:** Lizardiren arrapalak eta eskailera mekanikoak.
- **Miracruz-Bidebieta:** Azkuene Gomistegiko igogailua.

Eraso sexisten aurkako kanpaina hiriko jai eta auzo gehiagotara iritsiko da aurren

Informazio- eta arreta-guneek ere beren presentzia indartuko dute ekialdeko barrutiko herri-ospakizunetan



Donostiako Udaleko Berdintasun Bulegoak jai-giroko eraso sexistak eta sexualak prebenitzeko eta artatzeko kanpainaren beste edizio bat jarri du abian. "Festetan ere aske! Indarkeria sexistarik ez!" lelopean, ekainetik abendura bitartean egongo da kanpaina indarrean, eta hiriko ospakizun nagusietan nahiz auzoetako jaietan eramango da aurrera.

Kanpainaren helburua da eraso sexisten aurkako prebentzio-mezuak zabaltzea,

emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea eta indarkeria matxistaren edozein adierazpenen aurrean gaitzespen-jarrera aktibo bat sustatzea. Era berean, informazioa eta baliabideak eskaini nahi ditu, bai indarkeria-egoerak prebenitzeko, bai erasoren bat jasan duten pertsonen laguntzeko.

Aurreko urteetan bezala, etxetik etxe informazioa banatuz hasiko da kanpaina: hain zuzen ere, gomendioak eta jarduteko jarraibideak helaraziko dira. Gainera, informazio- eta sentsibilizazio-materialak banatuko dira, euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez.

Aurtengo berrikuntza nagusia kanpaina auzoko jai gehiagotara zabaltzea da, herritarrengandik gertu egoteko eta prebentzio- eta arreta-baliabideak hurbiltzeko. Barrutiko informazio- eta arreta-guneak honako hauek izango dira:

FIESTA	DÍAS	HORARIOS	UBICACIÓN
Intxaurrondo Zaharreko jaiak	Irailak 12, ostirala	20:00 – 00:00 (4 ordu)	Letaman gaztetxearen ondoan
Arriaga Serafinak (Altza)	Irailak 26, larunbata	20:00 – 00:00 (4 ordu)	Harrobieta plaza

Prestakuntza eta hausnarketa

Kanpainak, gainera, lan-ildo espezifiko bat izango du ostalaritza-sektorearekin. Farapi Kooperatibarekin lankidetzan, prestakuntza- eta hausnarketa-prozesu bat egingo da ostalaritzako profesionalekin, indarkeria-egoerak prebenitzeko eta horiei erantzuteko gaitasuna indartzeko. Lanak ikuspegi zabala izango du, eta LGTBIQ+fobiarekin, arrazakeriarekin, dibertsitate funtzionalagatiko diskriminazioarekin eta beste indarkeria eta bazterketa mota batzuekin lotutako egoerak ere jorratuko ditu.

Udalak jaien antolaketan eta kudeaketan inplikaturako hainbat eragilarekin koordinatuta egin du kanpaina hori, besteak beste, Donostia Festak atalarekin, Jazzaldiarekin, Udaltzaingoarekin eta auzoetako jai-batzordeekin, jai-espazio seguruak, berdinzaleak eta indarkeria sexistarik gabekoak eraikitzen jarraitzeko.

Intxaurrondoko haurreskola berriko obrak amaitu dira

Baratzategi kaleko 19. zenbakian dagoen zentroak 2026-2027 ikasturtean irekiko ditu ateak, 21 plaza publiko eta doakoekin

Udalak Intxaurrondoko haurreskola berriaren lanak amaitu ditu, 2026-2027 ikasturtean irekiko duen ekipamendua, zero eta bi urte bitarteko haurrentzat 21 plaza berri sortzeko aukera emango duena.

Baratzategi kaleko 19. zenbakian dagoen haur-eskola berriak auzoan dagoen eskaerari erantzuten dio, eta haur-hezkuntzako eskaintza publikoa indartzen du, orain arte hezkuntza-etapa honetarako baliabide mugatuak zituen eremu batean.

Europar Batasunak Next Generation EU funtsen bidez finantzatutako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan kokatutako Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza bati esker egin ahal izan dira obrak.

Zentroa Haurreskolak Partzuergoaren sarean integratuko da, eta horrek familientzako doakotasuna bermatzen du. Datozen asteetan irekiko da matrikulazio prozesua UdallInfo zerbitzuaren bitartez. Plazen esleipenaren kudeaketa Haurreskolak Partzuergoak egingo du. Partzuergo hori arduratuko da haurreskola publikoetarako sarbidea koordinatzeaz eta Haur Hezkuntzako lehen zikloan plaza eskatzen duten familientzako leihatila bakar gisa jarduteaz.

Intxaurrondoko haurreskola berria abian jartzea Donostiako Udalak hirian haur-hezkuntza publikoaren eskaintza zabaltzeko eta hobetzeko egiten duen ahalegin iraunkorraren zati da. Apustu horrek familien kontziliazioa errazten, hurbileko zerbitzuak indartzen eta auzoetako bizi-kalitatea hobetzen laguntzen du.

Gogoratu

Ekialdeko Barrutiko Batzarraren egoitza Altzako Harrobieta plazako 17. zenbakian dago. Barrutiaren jardura instituzional, administratibo eta parte-hartzailerako erreferentzia-gune nagusia da. Batzarraren bulegoak, bilera-gelak eta lan-espazioak ez ezik, Udalinfo herritarren arretarako udal-zerbitzua ere hartzen du eraikinak, aurrez aurreko arretarako bi posturekin eta udal-kudeaketak egitea errazten duen autotramitazio-makina batekin. Instalazioek konpostajerako poltsak saltzeko makina bat ere badute, eta haien zeregina indartzen dute hurbileko espazio gisa, irisgarria eta Ekialdeko Barrutiko herritarrei hurbileko zerbitzuak eskaintzera bideratua.

KONTAKTUA:

Bulegoa: Harrobieta plaza 17
Telefonoa: 010
www.donostia.eus